




# Goiz-Aize



MUNIATEGI'TAR SABIW

















N- 60295  
F- 61081

ATV  
27094

# GOIZ-AIZE

Muniategi'tar' Sabin

BILBAO'N, MCMXXXVI



---

ZURAK-idazkola ta irarkolea, Bilbao, Henao-txaidian 50 gn.



# *Eskeintza:*

*Astorkia'tar Luke*

*eta*

*Muniategi'tar Peli*

*guraso mañiai opalduten  
dautset olerki-txorta au.*



## AURÉ-ITZA

---

*Olerkarijak esku-artian zer daukan? Udabañirik edereñaen usañak atz-puntetan geratu yakoz. Inok ez bestian esan dausku Noailles emakumiak, bere «L'Offrande a la nature» deritxon olerkijan:*

*Je me suis appuyée à la beauté de monde  
et j'ai tenu l'odeur des saisons dans mes mains.*

*Beretzat Eder'ak autu daunaren begijetan argirik bixigenak dagoz. ¡Zelako goritasuna aren ezpanetan! Lañosa gustijakin mosuka ibili ete yaku? Olerkarijaren sentzumenak, goiztañak dira. Zadoñ au eztaikie igarí gustijak. Soloetako luí apatzaren kolkuian datzazan azijaen erne-aldiko otsak eurak, be, entzun*



daruaz oleřkari jayo danaz. ¿Nun egiten dabezan orilako loreak? Berak bakarrik daki.

Ořexegatik urbiltzen gara oleřkarijengana. ¿Zenbatzu zador euren idaztiñuan! Artotzaetan axe mia ibili dabilan legetxe, oleřkarijaren ahapal-artian, be, goiko Arnasa dabil.

Zabaldu egixu idaztiño au.

Muniategi'tar Sabin, oleřkari gaste-gastiarena dozu. Bizkaï'ko itxaso araren urdiña dauko begi-barranean. Eder eta On'ak eurentzat autetsi eben. Buru ameskořa eukan eta aruntz-onuntz ibili-ixan da bere euzko-txapela buruban ebala. Ondo ikasi eban: Atzerijan luřa garatz, oña ipiñi egik baratz. Edo beste a: Atzeri, otseri.

Filipinas, Indi eta Txina-luřaldietako ortziak zelakuak diran ikusi dauz Ikuskixun bakanak! Berein itxasori kolkua uratu dautsoe. ¿Eta oindiño ume bat baño ezta!

Muniategi'k dardara, ikara barija dakařskigu. Odei zador'tsuben itsurak; palmondoen amets-nayak, Kolonbo'ko belaeen baltza. Gauř arte ixan doguzan

*olerkarijakandik zerbaitek berestu darua. Bere begijak duakaz.*

*Gitxigan aurkitu daikegu gaste onengan aurkitzen dogun eder-ti-miña. Gauza gustijetan idoro darua eder-tasunaren zantzuba. Euzko-Eler-tijak asko itxaron daike mutil onengandik.*

### Mañetasuna

*Mañetasunik eztaukona, gixon ila dozu. Gaste bati ondo dagokijoz ur-zeko uztaya eta azkona. Muniategi-k, be, bijotza zabaldu dautso ludijaren jaube dan Auñari. ¿Eromantiku-arauz?*

«Mañasuna

—bixitzako ondasuna—

amets zuri garbijakin

gorde

bijotzaren sustařetan!»

*Ituna eztanik eztaikegu idatzi. Baña gai beresija aurkitu eztaunaren mañetasuna itsu-itsuka dabil.*



*Baña oleñkarijak ondo daki zelako mañetasuna jayo yakon.*

*«Neure kantea entzunaz  
dardar jañi zan ixaña, mañe-ikaraz.  
Dardar baratzeko lorak  
eta gabaren begijak.  
Dardar mañe-miñez zoraturik  
neskatxa mañagañijak!»*

*Baña ezta naiko. Txorijak, arats-berak eta zugatzak, gauza ta ixaki gustijak mañe dauz.*

*«Bi mila ezpan goñi zabaldu ziran  
mila abo itaunlari:  
Mañatzen nauk oleñkari?  
—Bai gustijok zarie neure mañiak!»*

*¿Zetarako laskituko doguz gogai oneik? «Gaber-diko amesa», «Inguma biti», «Udabañiko eresija», idaztiño geyena ikutu batek darabil. Gauñ itun dan mañetasuna, bijañ poztasuna ixango dalakuan gagoz. Loran agiri dana, igali umua, be, ixango da.*



## Ume-olerkijak

*Umientzat olerkijak egitia, ezta ereza. Gai arin-arin bat esku-artian artzen danian, ariskuz artzen da. Ingumak atzemon ordukoxe laskituten dira. Eztago euzko-elerrijan umientzat egiñiko olerki asko.*

*Idazti onetan, oratiño, alagalakuak irakuri daikuguz. «Ume itxastararena». ¡Politagorik!*

*«Bijař, aundija nazanian  
neure ingizko ixontzijan  
itxasora jungo naz ama;  
bijař, aundija nazanian...*

*¿Eta zer bila juango ete-yaku olerkari au? Aundija ixango danian «Ixařak sortzen diran eri ikusgarira» elduko ei-da. Ara zer dakařken:*

*«Ta eun ixař ta artixař bat  
sařtuko diřuk ixontzijan».*

*Begiko yaku olerkitxu au. Euzko-ikastoletan-eta bost bidař oguzi-eraingo dautsez ahapal samuř oneik!*

*Arau bardiñez egiña dogu «Txori Donetsija», be. Sabin gaste onen asmuak zelakuak diran dakigunok, ume-olekiz egindako idaztiño bat ditxarogu.*

### Izkuntza

*Gautegiz-Arteaga. Baseñi zurija, olo-loka bat-antzo, solo zabalen erdijan. Umekondo zur bat esko-laruntz dua. Irakasle españararak eztaki euzkerarik, beraz erdereba baño ezta entzuten.*

*Egun baten, amabost urteko mutikua urun-aldera dua. Filipinas-ugarñietara dei-egin dautse. ¿Zer ikasi egikian bere bere uritxuko ikastolean? Gauz aundi-rik ez! Ogeta bi urte-artio lanari ekin-ekinaz. Zer irakuñi ete-dau? Dana dala Euzkadi'ra itxuli danekoxe olekari gorengo agertu yaku. ¡Gaste onen zurtasuna!*

*Bere arbasoen elia ikasi ta adiraldu darua. Akats batzu aurkitu daikioguz, aditza zelan erabili biar leukian, be, beti eztaki. Baña utsok ezer eztira. Ordez ahapal garden eta argijak emon dauskuz, edonok ulertu daikiazanak. Muniategi'tar Sabin'aren bertso*



oneik erijak berak onartuko dauz, ulertezak dira  
ba-ta.

### Abintzea

Abintza zoragarria oraino au. Bizkaiko olerkari-  
rik gorengoetakua ixango yakun gaste oni, bide ge-  
yenak zabaltzen yakoz. Rabindranath Tagore'ren  
antza emoten dautsagu bere idazlanetan. Arek legetxe  
ixadija mate darua. Gogai sakonak eztarabiltz, baña  
bijotzeko orijorik gozoenagaz igurtziten dauz ikuski-  
xunak-eta.

«Lizardi» il zanian itun gengoan; gauz pozik  
gagoz. Muniategi'ren olerkijak edozein elektik beret-  
zat autuko leukez. Ume itxastara itxuli zanian oyu-  
egijoen:

«¡E, itxastar—  
eure ingizko ixontzijan,  
itxastar gaste, nundik dakark  
oren beste argi—ondasun?—

¡Orixe diadar-egiten dautsogu! ¿Nundik ete-da-  
kartz gaste onek orenbeste ondasun? Idaztiño au ondo  
irakuñiko dabenak igari al-ixango dabe olerkari



*on-on baten aurian gagozala. ¡Eta orduban, orduban entzungo dana!»*

*«Kayan entzungo dan txalotsa,  
nik edestuko dodanian...!»*

LAUAXETA.







# Ereñozar

*Euzko-mendigoxalíai.*

Negu eta uda,  
orlegiz yantzirik dager  
Ereñozar'ko mendija!  
Bere babesbian  
lo datza neure erija  
etxe baktotxetik  
ke-ariña darijola  
ametsez beterik...

¡Oi, bere ederitasuna  
lanbru ilun edo  
edurez yanzten danian!  
¡Gorantz igoteko  
gara soitzen yat barnean!

Irakurle, inoiz  
ezagoz mendi orretan?

Bere edestija  
ez al'dozu ezagutzen?  
Mikel Deuna eta  
Deabruaren gudua  
eztozu iñoiz be, entzun?

Mikel Deunak ta Txerrenak  
bijak gura eben  
Ereñozañ'en agindu,  
¡baña bijak ezin ixan!...  
Zerua ta Inpernua  
asañatu ziran eta  
zeingeyagokorako,  
Mikel Deuna ta Txerrena  
mendiratu ziran;  
Mikel'ak aitz baten ganian  
bere ezpata luzia  
itxi ixan eban...

¡Oi, Txerren adarñsubak  
burutik kendu ba'tuzan!

Galur-galurian,  
amuruz beterik,  
zeñek urunago  
saltateko gertu ziran.

¡Oi, uniaren lañija  
goi ta beyaren erdijan!  
Lenengo Mikel Deuna  
gero, Deabrua...

¡A! edesti ori  
zuk eztozula ziñisten?  
Deabruaren apatxak  
begijakin ikusteko,  
betor ba, neurekin  
Ereñozaí'era!  
Eta Muruetagana'ra  
Añi-zapal baten dagon  
Gongotzon, Mikel Deunaren  
odola gurütuten!

Nor ixan zan garalia?  
¡Ez aldautzut esan?

Ara, an... goi-goyan...  
Gautegiz Arteaga'tik  
lañopian, eskutuki,  
baselez polit bat  
eztozu ikusten?

.....



Negu eta uda,  
orlegiz yantzirik dager  
Ereñoza'ko mendija!  
Bere babespian,  
lo datza neure erija  
etxe bakoxtetik  
ke-ariña darijola  
ametsez beterik...

¡Oi, bere edertasuna  
lanbru ilun edo,  
edufez yanzten danian!  
¡Gorantz igoteko  
gafa softzen da barnean!

# ¡Ez autortu!

Bijotza,  
galendun eden mingotsa  
bijañ edan eztagixun,  
ez esan,  
ez autoñtu ezpanakin  
zer daukozun begijetan!  
Mañasuna  
—bixitzako ondasuna—  
amets zuri garbijakin  
gorde  
bijotzaren sustañetan.  
Zorijona  
mosu bero lixunakin  
betiko gal eztagixun  
ez esan,  
ez autoñtu ezpanakin  
zer daukozun begijetan.  
Mañasuna

—bixitzako ondasuna—  
amets zuri garbijakin  
gorde  
bijotzaren sustařetan!



# Añain - Saltzalia

Eguzkijaz batera dator  
kayaldeko iribañia;  
eguzkijaz batera dator  
neska añain-saltzalia.

Zenbat gaste dago lañijan  
noiz etorko ete zarean!

Otzara luzia buruban  
—añañak saltoka bañuban—  
Otzara luzia buruban  
eta zenbat ames kolkuan?

Esku bat daukazu geñijan  
bestia jolaska axian.  
Nexka! Kantauri itxasuan  
begijok margoztu zenduzan?

Txitxañuak eta sardiñak  
—itxasoko okela mamiñak—  
zeure ointxubakin batian  
saltoka dozuz buru-ganian.

Zenbat gaste dago lañijan  
noiz etoriko ete zarean!

Zeure abots bulañtsuba  
—itxasuaren ofu leguna—  
ortzirantz pozkiro dua...  
¡zer ete da gastetasuna!

Gorputzoi dabilzu bai, pinpin,  
—oñak etxerik-etxe arin—  
Otzara luzia buruban  
eta zenbat ames kolkuan?

Txitxañuak eta sardiñak  
—itxasoko okela mamiñak—  
zeure amesakin batian  
saltoka dozuz buru-ganian.

¡Zenbat gaste dago lañijan  
noiz etoriko ete zarean!



# Kabi utsa

Udabañiko egun alai loratsubetan  
Toki ederean, txori bik egin leben  
Kabitxu bat, bertan zorijontsu euren  
Bixitza gustijen bixiteko ustetan.

Eta mañekiro dabilzazanian,  
Adañ batetik bestera, abes ta abes,  
Orduban, bene-benetan, zorijonez,  
Gero miña jayoten da kabijan:

Uñetxindoñ kumetxuba datoñ ludira...  
Gurasoen bijotzak mañasunez beteta  
Poz-pozik dagoz txoritxubari begira...

Baña ezta, ez, luzaroko zorijona,  
Kayola bataz mutil kozkoña datoñ-ta.  
¡An dua txoritxu mañiaren poztasuna!



# Kolombo'ko belak

¡Oi, ene neure euzko-begi, begi urdiñak!  
Zeylon uraftian, Kolombo'ko urijan  
Zenbat bela ikus dozubez egazean  
Aragi ustelez beterik erpiñak?

Bela gustijak lez baltzak ta loyak ziran,  
Baña ez euretariko bat il, ez ikutu...  
Abere goñarak dira ta, benetan  
Eurentzat obarik ezin leike arkitu.

Ixontzija egaka doya itxas-ganian  
Alañasunez itxirik an, urijan,  
Kolombo'ko bela aragi ustel-zaliak.

Ai, al baneuke al, efi oñen antzian  
Itxi, bañuki emen, neure bijotzian  
Sartu diran oñura baltz eta loyak!

---

Kolombo'tik urtekeran «President Adams» ixontzian.

# Liluratubarena

Lats-axia artotzan kantari,  
tanbolin-soñua enparantzan:  
ametsezko gastaro bixitzan  
neskutz pilua dantza-dantzari.

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi  
ba'neki, mañia nun zagozan!

Mañagar adu ezkongiliak  
ixilki diraust belarondora:  
«au, a, bestia... ¡zuaz ondora!  
aneika daukazuz mañaliak».

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi  
ba'neki, mañia nun zagozan!

Emakume-añtian galdurik  
zeure irudi-atzetik nabil;  
zeure irudi-atzetik nabil  
mañontzi sutsuba jasorik.



Oi, ba'neki neschutz ezezaunoi  
ba'neki, mañia nun zagozan!

Begijak zugaratzen ba'dira  
lasterki dazañut ezpanetan  
ba, Ixadi-aoz mintzaten zara  
zeure egikera gustijetan!

Oi, ba'neki neschutz ezezaunoi  
ba'neki, mañia nun zagozan!

Oldozkun sakonakin bildurik  
ostiña daukazu begijetan;  
kanta ariñakin margozturik  
odol zerutaña ezpanetan.

Oi, ba'neki neschutz ezezaunoi  
ba'neki, mañia nun zagozan!

Sar naiz emakumien begijetan  
ta eztot osotu neure amesik;  
bañuratu naiz bijotz danetan  
ta eztot idoro mañasunik.

Oi, ba'neki neschutz ezezaunoi  
ba'neki, mañia nun zagozan!



# Izkuntza ixila

¡Beti begijakin!  
Baña,  
ixilik dago  
ta, ixilik nago...

Oi, ene begi urdiñok  
zeñ itaundu dautzazube?  
Nik eztakit ezeñ  
ta ezin neike erantzun.  
Itaundu edoi, ixaf ta  
ortzi zabalai;  
itaundu bedañ, lora ta  
ludi gustijai;  
itaundu zeure bijotz ta  
neskutz edeñ oñen ezpan—  
goñi sutsubai.  
Nik eztakit ezeñ  
ta ezin neike erantzun.

¡Beti begijakin!  
Baña,  
ixilik dago  
ta, ixilik nago...

Oi, ene begi urdiñok  
ezer erantzun dautzube?

# Baikortasuna

Goxeko eguzki argijaren menpian  
anei mitxeleta zuri egaka dabiltz  
lañoondo zoragañijen goi-aldian,  
lili-buruben zain, bat zabalduko ba'litz!

Legun, axiak, bijotz-onduan mun-dagist.  
Goxaren adia, ¿ain ixilki, ain bigun  
bijotzai eskintzeko ainbat gozotasun  
neskutzaren mañasunak ete dargist?

Eztot ulertzen ez, zure goitaf izkuntza.  
baña ainbat edertasunek zoraturik  
uste dot baso ta oyanen lorakuntza

neugañik sortuko zala, neure omenez,  
ta neke-miñak uxatuz, argiz bildurik,  
Mañagar datorkidala esku zabalez...





# Zeugaitik

Mañasunezko bide pozgaririk  
lañopian, eskutuki,  
zeu agertuz batera sortu ziran  
ezauge yatazan biotz-ikarak:  
oñaze eta ezbai mingariak,  
poztasun ta itxaropen lañiak.

Ta, ezbaitasun ta naigabepian  
betiko jausiko nintzan  
eripe yatan bideska estuan,  
zeure neskutz begietan idoro  
ezpaneban goiko laguntasuna,  
ezbaitasunak bastertuz  
jaraitzeko gogoz, bide autua...

Orain, ¡O, ene maiteno maitia!  
elburu dan geroko batasunak  
damostan pozez— eripea leunduz—

zeugañik,  
leunkiro dargist gaba dan ilunak  
zabaldurik bixitzako atiak;  
zeugañik,  
ametsezko lorategiñik datorz  
inok inoiz susma-bako  
luringai zoragañiak,  
ta iturñi gardenetik,  
itxaso bañien eres sakonak.  
Zeugañik:

zeure begi amesgañi  
ta oin ariñakatiñik,  
zeuria dan ao txiki  
ta esku poliñakatiñik.

Zeugañik, jene itxaropen-lore!  
biotzaren maitasunezko ondasuna  
zeuretzat oso ugaritu dedin,  
ametsezko otoi samuñenakin  
(mendi-goñik ta beraño)  
gogotik  
ludiarñi kendu neutson mamiña  
ta amaige dan ortzi diztikoñai  
neure begi-niniakin  
(gau ilargitsu batean)

ixilkiro ostu neutson  
bere izkidun azala.

Orain, irudi edereez yantzirik  
gartsuki dagertzut ene biotza,  
zeuk naidozunian ¡maite!  
gogo onez, espantxuak zabalduz  
erantzun dagidazun: bai



# Itxaropena

Mendi, zelai eta aranak  
baso, ereka eta ibararak  
legoñte luziaren menpian  
gora-begira, ao-zabalik.  
Inguru gustija  
egarajak dauka!  
Zeru urdiñean odei baltza,  
—eurijen jaubia—  
igeska digaro  
tantarik luñai eskiñi-barik.

Añatsaldeko euzki epelak  
leunkiro darakañsku gaba.  
Iluntzean ixartxu edeña  
dir-dir agertzen da oztiñan.  
Ta luñ legoñtuba,  
luñ liluratuba  
begiz-gora, ametsez beterik.  
Itz ixilez diño:  
A, añats leuneko  
odei txukuna noiz biuñtuko da?

# Atzipetubarena

Oi, zenbat bide  
zeugañik ibili nintzan  
ta zenbat neke  
zeugañik jaso nebazan!

Baña dana alpeñik  
dana, gustiz alpeñik!

¡Zeugañik!  
Neure bixija,  
neure naimena  
ta neure mañasunaren giltzak  
zeure eskubetan laga nituzan!  
Eta,  
ametsezko estalgiz bildurik,  
zeruaren azal diztikoña,  
ludijaren onura mamiña  
ta itxasuaren bafen sakona

mātekiro opaldu neutzuzan,  
danakin bijotz on bat egiñik,  
¡zeuretzat!  
Eta,  
neure bixija,  
neure maimena  
ta neure mātasunaren giltzak  
zeure eskubetan laga nituzan!

Ta zuk ezenduban nai,  
ta zuk ezenduban nai...

Luzaro,  
zeure atzian,  
zeure menpian  
liluraturik ibili nintzan  
noiz mātatuko ete ninduzun!  
Eta,  
ixil-ixilik, neure begijak  
zeure begitxuetañ jañirik  
ta zeure eskutxu politak  
neuriakin, legun, bat-egiñik,  
lei-bixiz, neure mātasuna  
sakonki azalduten neutzun.  
¡Eta,  
luzaro



zeure atzian,  
zeure menpian  
liñuraturik ibili nintzan  
noiz mañatuko ete ninduzun!

Baña dana alpeñik,  
dana, gustiz alpeñik!

Il zan, bai,  
il zan betiko,  
ene mañasuna!  
Juan zan, urundu zan nigandik  
urundu zan amesak bastertuz!  
Eta,  
naigabezko bide itunetik,  
guzuña baño nabaitzen ezan  
gau ilun ta ikaragañijan  
bañuratu nintzan, zoraturik...  
Baña ene bañundi iluna  
argitu zan, argitu zan nozbait!  
Baña,  
il zan, bai,  
il zan betiko,  
ene mañasuna!  
Juan zan, urundu zan nigandik  
urundu zan, amesak bastertuz!

Oi, zenbat bide  
zeugañik ibili nintzan  
ta zenbat neke  
zeugañik jaso nebazan!

Baña dana alpeñik  
dana, gustiz alpeñik!

# Argija

Jakiñeza maltzuñak labankeriz  
jaso ninduben ixarētaraño.  
Gero beko zakar-osiñeraño  
erori nintzan gogo-kaltegañiz.

Ilunetik argitara egaiz nai,  
baña egoetan indañik ez, Jauna!  
Sendotu dedin adimen biguna  
norbait eztozu bialduko neure-zai?

Bakañik nago bakañdi baltzean,  
azpijan naukoe, zatarkeripean,  
uñatu nairik betiko argija...

¡Oi, barneko jakin-nayen egañija!  
Jaunaren baratzeke lora kutuna  
iñoiz geugan eukiko eztoguna!



## Eta orain...

¡Eta orain zeu zatoz  
mañontzi betia eskuban dozula!  
¿Zegaitik zatoz zegaitik?  
Ene  
begijari ainbat malko  
ixuri daragijotson  
ta atzo ainbat mañe neban bijotzoi  
legunkiro dopalstezu  
zeure ames estitsubenakin bildurik...  
Baña  
¡berandu zatoz berandu!  
Zeure ezetz saminkoñak  
luñeratu zituzan nire amesak  
eta, ene bijotzean  
samuñtasunez beterik,  
ganezka, irakitxen neukon odola  
zeure begi edefakin  
edenez bete zenduban.

Beste bide eder batetik jo neban  
ta beste begitxu batzuk  
neure begijetatik bañuratu ziran,  
eta, gogo samindubak  
beste gogo baten magal zoruntsuban  
daufki bere atsedena.

¡Eta orain zeu zatoz  
mañontzi betia eskuban dozula!  
¿Zegatik zatoz zegatik?

# Udako gaba

Eguzki-argi mia uxatuz  
gaba dator, udako gaba.  
¿Ames-luñinkayak zabalduz  
zer ete dakarzu luñera?

Gora eta bera  
begira nago amesetan:  
goyan ilaŕgija  
ixaŕakin diz-diz izketan;  
beyan, bertanbera,  
soloko garija  
axe leunakaz dabil dantzan!

Alkaŕen atzian  
zugatzetan ipuŕtaŕgijak  
jolasean duaz!  
oŕ-emenka zaunka txakufaŕak.  
Baso-aldian gau-txorijak  
alaru ta egaz!



Ta neure auzoko leyuan  
—mañusun-gaña darijola—  
abestixu samur bat dantzut.  
¡Oñen abots leuna yaukuan  
neskatxa poxpola,  
bijotz samur ori  
beste batentzat ezpalitza!

Gora eta bera  
liluraz nabil amesetan:  
goyan ilargija  
ixañakin diz-diz izketan;  
beyan, beñtanbera,  
soloko garija  
axe leunazaz dabil dantzan.

Ames danak zeuregan bilduz  
argizko lañosadun gaba,  
izpijen artian goralduz  
zer ete daruak zerura?

# Goxeko adikunea

*(Andre Ady.—1867-1919)*

¡Ene ludi poliña  
lañosakaz jantzija,  
nekez datzan soñaren  
zorunezko ats-alpeña!  
Zadoñoña, argitsuba  
anei abi bigunez;  
¡juri zoragañija!  
¡Goxeko eresi deuna  
bixitzako soñua,  
zoragañizko kantea!  
Bixitza litzaken ona!  
Zenbat ames dagijan  
eta dana bestiena;  
zenbat uré dirdiraz  
eta dana bestiena;  
zenbat emakume edef  
eta dana bestiena;

zenbat atsegin bañi  
marmara gozuenaz,  
eta danak bestienak;  
zenbat egi-nai sortzen  
eta danak bestienak;  
zenbat gauza dirdikor  
eta zein ederak danak,  
eta zein deun-deunak...  
¡Baña danak bestienak!



# Iñunabañak baseñijan

*Intza'tar Joseba'ri bijotzez.*

## I

Azkañ-azkar kabirantz doya gau-txorija,  
bere egun ñunai emonik amaya;  
ixañak egun-sentijaz, laño-añtian  
osoro galtzen dira oñtzi zabalian.

Euzki goiztañak dei dagitso Egunari.  
ta Egunak, «Goñijeneko, Kepandon»i,  
oya itxi-ta, juteko oñbel zabaltzen  
basoko garoaz usteldu ezdañezen.

Nunañik datoñtz txorijen txoñotxiuak.  
Iñibañe dagi alai, andere Luñak,  
jasorik eguzkijaren laztan biguna.

Ta oñtzi oñtin-zabaletik gora doya  
ludiko edeñtasun oron egilia,  
basteñ danetan zabaldurik ondasuna.

## II

Ate ilunak edegiten ditu gabak  
eta, itzal-arztean, ludiya estalduz,  
uri ta baseñi, itxaso ta basuak  
lotara doyaz, gañantzi gustija galduz.

Kepandon, sukaldian dago oerako geñt,  
arñtoak gañandu ta txokoñak eñeten,  
ipuin zañak gogoratuñ, su-txinpeñt  
goñijetan noizik-bein eskuak berotzen.

Ate-biñañtetik datoñ axe labana,  
Kepandonek bijañko itxi daiskun, bere  
«Peru eta Maritxu'n» edesti kutuna.

Eta gogoz, otoi-ondoren, lo-goñuak,  
baseñitañai amesetan darakutsez  
begijakin ikusge diran zokonduak.

# Arto opilak

Erduze ona mutilak  
egur-gaŕastak ekaŕten.  
Gaur, amana dabil laban  
opil bigunak eŕeten.

Opilaren usaintsuba,  
geldiro eŕenikua!

Labarto usaintsu eta,  
axartozko opiltxubak  
amamak baŕno obeto,  
nok ete dakiz eŕeten?

Opilaren usaintsuba,  
geldiro eŕenikua!



Erduze ona mutilak  
eguf-garastak ekarfen.  
Gauf, amama dabil laban  
opil bigunak ereten.

Opilaren usaintsuba,  
geldiro erenikua!

# Atsedenaldira

Ixadijaren magal urtsuban  
gelditu zatez ene Abes-min,  
edan-arte, geldi, une baten!

Neure luí ta neure itxasua,  
oi, neure ametsezko zeruba!  
Ederitasunez bete-beterik  
emoidazu neure edontzija  
emoidazu, aien!

Edanda, ibil ta ibil nedin  
ardau zerutaz moskorturik:  
(itxaso sakon eta ligoiez)  
gaui emen-berton eta biaz an,  
mate-kanta ariñak kantetan.

Neure luí ta neure itxasua,  
oi, neure ametsezko zeruba!

Edertasunez bete-beterik  
emoidazu neure edontzija  
emoidazu, aŕen!

Ixadijaren magal urtsuban  
geldiŕu zaŕen ene Abes-min,  
edan-aŕte, geldi, une baten!



# Gabekua

Eguna amaikeran Eguzki'k itxasora  
jaurti eban bere buru argija,  
ta, Ilargi pozañen datoñ mendiñik gora  
ikusteko gabeko bixi zoragañija.

Zugatzetan dabiltz ipurtañgijak dantzari,  
zugatz bakotxian ortzi edeñ bat sorturik,  
uri ta baseñijetan txakuñak zaunkari,  
bide ertzetan, maitaleak ametsez josirik...

Ipurtañgijak dantzari, txakuñak zaunkari  
maiteleak... ¿ta, zu begiz-gora olerkari?  
¿zazpi ixañetatik zein da zure kutuna?

¡Olerkari gaxua! Zoaz ames-egoetan  
ixañetaraño ta goiko ixar orotan  
asetu zeure bijotzan gurari kutuna!

# Itxaron ama

*Pinaga'tar Paul'i, bijotzez.*

Sofkaldeko Abeñi onetara eldu nintzan  
itxirik neure alañtasun eta poz gustijak,  
itxirik neure gurasuak baseñi-bixitzan  
negañez, saminduta ain bijotz maitagañijak.

Oi, zenbat bideñ dantzut amatxuk niri esana:  
«Noiz-añte zoyaz, noiz-añte ene seme laztana?  
«Zeu zara seme, zeu, neure bixijaren bixija,  
neure maitasuna eta itxaropen gustija!»

«Aztuko dozu zeure ama? ¿eta Abeñija?  
¿ta, basteñtuko dozuz euzkal -ekandu onak?  
¿Alpeñik ete da, ba, neure alegin gustija?»

¿Aztu? Ez, ama, itxaron beti, itxaron gogoñ,  
Laiteñ Abeñirantz natoñ, gogoz entzutera oñ  
maitasuna darijen euzkerazko itz samuñak!

---

Manapla (Filipinas Ugartedija).



# Gaberdiko amesa

¡Betoñ neure lua,  
Betoñ egi biuñtuz  
bartko ames gozua!

¡Amesaren pozgañija  
ames atsegiña neure bartko amesa!  
Edoi-añtetik igaroz  
unetxu baten, ¡zazt! ixañeratu nintzan  
txoriño baten antzean.

Uñretxindoña zan bijotz onen jaubia  
ta egaizka joian.  
Nigandik aldendu zan txori zolia!  
Baña besuak zabalduz,  
—mañasunaren egoz—  
unetxu baten ¡zazt! ixañeratu nintzan.

Ixañeko baratz mardul argijan  
eriñotz baten ganian



txori mañia idoro neban kantari...  
Jaso nebazan pozkiro besuak,  
jaso nebazan mañeki  
ta emon neutson abesari:

«Nora zua mañia,  
nora ain kantari?  
Neuregan dot ixaña,  
neuregan eguzki.  
¡Edozenbat argi-izpi!  
Nora zua mañia  
nora ain kantari?»

Neure kantea entzunaz  
dardar jañi zan ixaña mañe-ikaraz;  
dardar baratzeke lorak  
eta gabaren begijak.  
Dardar mañe-miñez zoraturik  
neskatxa mañagañijak!

Bi miña ezpan goñi zabaldu ziran,  
miña abo itaunlari:  
«Mañetzen nauk olerkari?»  
—Bai, gustijok zarie neure mañiak,  
baña txori eder ori  
neure mañerik mañiena!

Jatsi zan zugatzetik txorija...  
¡A zan alatz ariñarija!  
Txorija zana neskatil lirain biurtu yatan:  
ezpanak goñi-goñijak  
ule baltz luze-luzia,  
begitxu zoragarijak...  
«Mañe zañut» — esan eustan.  
Erantzun-ordez mosutxu bat emon neutsan.

Mosu bat emon, beste bat artu!  
Eta ixañez-ixañ alkañturik  
gaberdijan luñeratu gintzan  
ixañ-izpijen jantzijan bildurik.

¡Amesaren pozgarija,  
ames atsegiña neure bartko amesa!  
¡Zorijontsuba bai ixango nintzake,  
zorijonez bete-betia  
ames a egi biurtuko ba'litzake!

¡Betoñ neure lua,  
betoñ egi biurtuz  
bartko ames gozua!



# Inguma bati

Liliburu mardulan irin gozuak miskatzen  
(zeure ego-bigunak, txorijen antzera, luma  
bat soñian euki-ezafen) egaka ibilten  
zara, lorarik-lora, Udabañiko inguma...

Mañe-miñez, liñuraturik begira nagotzu  
zelan, ain lubuñia ixanik zeure bixija  
zabiltzazan ain bizkoñ eta ain gogotsu  
asetu eziñik bijotzan dozun egañija.

Zeure irudi-zati bat naz... ¡Goazen ba, auñera  
idoro-arte, lei-bixiz mañe dogun loria!  
Zarkitzen ba'dogu, nik, neuria ta, zuk zeuria...

¡Ez lañitu! ¡Eriogañik ez ixan ikara!  
Geu, ilñda, jauzten ba'gara lenengo, luñera,  
ofi matañiak jauziko dira geure ganera!



# Zorakerija

Nik eztakiñ zer zan:  
gaba ala eguna,  
une bat ixan zan.

Mañagañek zirikatuta  
—neure begi bijak itxirik—  
ixar-bagako zeruetara  
alaikiro zuzendu nintzan.  
Argiñasunaren edeña  
ixar-bagako zeruarena!  
Gero, zeru goi-goietatik  
—neure begi bijak zabalik—  
uin-bako itxasuetara  
jatsi nintzan mañasun-barik...  
Iñuntasunaren tamala  
uin-bako itxasuarena!

Aztu-barik gertakixunok  
orain, mañasunezko izkiz,

uřez idatzirik daukodaz  
ametsezko ingi zuriĵan,  
beraz oroitzen nazanian  
baře dagidan nasai-nasai.

Nik eztakiř zer zan:  
gaba ala eguna,  
une bat ixan zan.

# Goyetako eduña

Egun otz eta lañotsu baten,  
sagastijaren loratze edo,  
Mañagañijen ames-antzera,  
zeru goñik eduña yatsi zan  
luñ zipotza koñore gañbijaz  
yantziteko.

Orain,  
beko leunetan, basa-ganian,  
zuriñasuna da, bai, nagusi;  
ta goyetan, mendi galuñetan  
eduñ zuri-izoztuba dago  
bere gañbitasun betikoña  
erakusten.

Gero,  
bijañko euzki bixi-bixijak  
leuneko basatzen jañi dana





zikintzan lurperatuko dau  
ain edertasun ikusgarija  
ondaturik,

Baña,  
mendi galurretako zuritasuna  
eguzki'k bere izpi bixijak  
sutsukiro bidaldu-aren be,  
beti, goyetan ikusiko da

. . . . .

Goguaren ludiñak amesak  
bana-banaka, galen itunak  
bixirik lurperatuko ditu,  
bixirik lurperatuko ditu,  
baña, ¡O, goyetako eduña!:  
ene bixitzako asmo-gotaña  
bixi-nazan-arte iraungo da.

# Edertasun Galdubak

Oi, mendi galuñetako eduñ zuriña!  
(Ixadiren lora edeñ zoragañña)  
Noizik-bein euzkijaren berotasunak  
urtuten diñu zure soin-edeñtasunak.

Mendiñik bera datoñ bai, zure negaña...  
Oi, eduñ zuriña! Lasteñ da, zoritxañez,  
basa-luñ zikiñetan nastaurik, tatañez,  
lengo soin gañbijaren irudi edeña.

Baña, ene, ezara zu bakañik eduñ...  
Jolas nasai-nasayetan neskatz lirañak  
galtzen dabez bijotzeko edertasunak.

Ezara bakañik eta, ez ixan bilduñ.  
Zure gorputzoi gal eban euzki-indañak;  
bañiz berena, atsegin bete-eziñak!

# Oroitu gañezan...

*Urkiaga'tar Estépan, «Lauasetan»  
ospatsubari, bijotzez.*

Negua da, bai,  
negua.

Goyetan eduña nabari  
eta lanbrua;  
erékaldietan ujola  
gustiz ugari.

Negua da, bai,  
Negua.

¡Ezer be eztaukenakin oroitu gañezan,  
geure eruz,  
bide-ziof baten ilda jauzi eztañezan!

Juan zan udaro maña  
ta ixildu ziran txorijen



txorotxiu entzungarriak  
eta, lora berezijenak  
izotzpian igartu ziran.

Axotsak luferatu ditu  
azkanengo oñi zimelak  
eta baso ta bidertzetan,  
edergaritzat dakusguz, bai,  
orbelezko azpiki loyak.

Kalerik-kale dabil, eske,  
zazpi seme ta andria  
daukon aita agurgarrija!  
¡Burdiñolatik, askorekin  
batera, jauñtiben kanpora!

Oi, ze tamal eta ze ilun  
igaroten dira egunak  
neguan,  
nun berotu eta, gosia  
nun asetu eztaukonantzat  
etxian!

Lan-bila dabixanarentzat  
lanik ez,  
ta lan-egin barik inontzat  
ezeñ ez!

Oi, zeñ ete da, zeñ  
gosemiñez, janarija bilatu eta,  
ezeñezaren samiña;  
oi, zeñ ete da, zeñ  
ate bakotxian  
eskua luzatu eta idorotia  
arpegi gogoñ iluna

Lan-bila dabixanarentzat  
lanik ez,  
ta lan-egin barik inontzat  
ezeñ ez!

¡Au bixitz zori txafekua!  
¿Nok esan ez, ba, nok, onela  
bixi ixan baño il, edo  
ezeñ bere ez ixatia  
obeto ixango litzakela?

Begijak donokirantz jagi  
baña, ai! bertan, ¿zeñ ikusi?  
—Zeru goi-goitik luñeraño  
ezta iluntasuna baño  
leku gustijetan agiri.

Oi, ze tamal eta ze ilun  
igaroten dira egunak  
neguan,

nun berotu eta, gosia  
nun asetu eztaukonantzat  
etxian!

. . . . .

Negua da, bai,  
negua.

Goyetan eduña nabari  
eta lanbrua;  
erealdietan ujola  
gustiz ugari.

Negua da, bai,  
negua.

¡Ta, ezer eztaukenakin oroitu gáñezan  
geure efuz,  
bide-ziof baten ilda jauzi eztañezan!



# Uri iĭa

Gau iĭun baten begiak jasorik ortzira,  
oroitz-bide leunetik, neure oin-azkaĭak  
uĭferatu nenduben lengo amets zaĭak  
biztanle bakaĭak ziran betiko urira.

¡Uri negargaĭa!  
Ez etxe bat sutunik,  
ez leyo bat zabalik,  
ez argi bat bizturik.  
Dana zan iĭuna,  
dana zan ixĭla...  
¡baltza ta iĭuna,  
uri uts ta iĭa!

Len, jauregi edeĭaen jaube zan urian  
etxe on bat be, sutunik eneban ikusten,  
¡ta anei neurkin lebazan kale andian  
tximistgurdi ez notin bat eneban arkitzen!

¡Uri negargaña!  
Ez etxe bat sutunik,  
ez leyo bat zabalik,  
ez argi bat bizturik.

Dana zan iluna,  
dana zan ixila...  
¡baltza ta ituna,  
uri uts ta ila!

Uri ilaren iluntasunaz afiturik,  
susotz bat biztu neban neure oroimenian,  
ta ¡ene alatza! neure aúfean egoan  
gerixa, bixia, ari-tartean ixilik...

Jafi nintzan  
ta bera, be, bai;  
jagi nintzan  
ta bera, be, bai;  
ibil nintzan  
ta bera, be, bai.

Ta irika, ele ixilez, itaundu eustan:  
«¡Oñarte enozu ikusi  
ala enozu ezagutzen?  
Zuaz, ba, emetik aúfera zeure bidean  
eta ilai bakean itxi  
antzitasunian bixiten».



# Txori donetsija

Txindořtxuba dabil mimenetan,  
—ama-semiak alkař-izketan—  
Txindořtxuba dabil mimenetan  
izpař baři ta onak kantetan.

¡Oi, txori edeř txintxinlarija...  
zeř izpař dakařk eure kantetan?

¡Amaren poza txoritxu ori  
auřeratzen yakon bakotxian;  
semiaren amuřuba, aři  
edeř bat eskuban daukanian!

—Ama, ilko dot txindořtuu ori?  
—Zer ¿Txindořa il? ¡ene bijotza!  
Eztakixu zelan, txepetz-kaka  
garbiřu eutson gure Jaunari?—

Oi, txori edeř txintxinlarija,  
gustijen ařtian donetsija!



Bide-ziaŕ yoyala... Txepetxak  
arpeia loŕu eutson Josuri,  
eta txindoŕ poliŕ apalak  
lasteŕ garbiŕu eutson maiteki.

—Ta, ama, pekatu da ilŕia...—  
—Bai. Bai ene semetxu maitia,  
pekatua da, eta, aundija  
txoritxu apal ori ilŕia.—

Txindoŕtxuba dabil mimenetan,  
—ama-semiak alkaŕ-izketan—  
Txindoŕtxuba dabil mimenetan,  
izpaŕ baŕi ta onak kantetan.

¡Oi, txori edeŕ txintxinlarija...  
zeŕ izpar dakaŕk eure kantetan?

# Ume itxastaraena

Bijañ, aundija nazanian,  
neure ingizko ixontzijan  
itxasora jungo naz ama;  
bijañ, aundija nazanian...

Txipli-txapla, uin-ganetik...  
Oi, norañte elduko nazan!

Neure ingizko ixontzijai  
zikiriozko oyal zurijak  
lotuko dautsodaz, gogoñki,  
axiak putzitu dagixan.

Txipli-txapla, uin-ganetik...  
Oi, norañte elduko nazan!

«Ixañak sortzen diran eñi  
ikusgañira» elduko naz.



Ta eun ixañ ta artixañ bat  
sañtuko ditut ixontzijan.

Ontzijaren argitasuna  
kayera sañtzen nazanian!

Axoyal zabal-zabalakin  
geldiro sañtuko naz poñtura.  
¿Noren ixontzijak lekañke  
eun ixañ eta artixañ bat?

Ontzijaren argitasuna  
kayera sañtzen nazanian!

¡E, itxastañ!—esango dauste—  
zeure ingizko ixontzijan  
¡itxastañ gaste! ¿nundik dakañk  
ofenbeste argi-ondasun?

Kayan entzungo dan txalotsa,  
nik, edestuko dodanian!...

«Ixañen soñteñik dakañt»  
—mañekiro esango dautset—  
¡baña ingizko ixontzijan  
ara ume bat jun biañ da!



# Udabañiko eresija

¡Ixadiren edertasuua  
Udabañiko goiz onetan!  
Oi, bijotz, zegañik ezara  
poztuten gauñko egunian?

Txoritxubak txoñotxiuka;  
inguru legoñenak loran,  
edoi urdiñak goi oztiñan...  
¡Oi, zenbat oldozkun axian!

¡Axiaren abañots leuna  
goyetago zugatz-añtian;  
goyetako mañmaña gozua  
arin, berantz datoñenian!

¡Zenbat alañasun ta algara  
edertasunan magalian!  
Oi, bijotz, zegañik ezara  
poztuten gauñko egunian?

Mañagar lankide dodala  
irudimen bixiz, sakonki,  
ixadijaren oldozkunok  
neuganutzen asiko ba'nintz...

Ames leitsuenakin bildurik  
neure kutunai eskeintzeko...  
Oi, zenbat ederñgai ezilkoñ  
bañnian irako neukozañ!

Baña, bakañik nago,  
bakañ-bakañik...  
Oi, ene, zeñ dagiket  
mañasun barik?

Ezpa'daukot nori opaldu...  
¿Zetarako ainbat oldozkun,  
zetarako bijotzeratu  
zetako, ainbat ederñtasun?

Zorijontasuneko bidia  
arantzaz idoro añen be,  
¿zeñ ete noberan bijotza  
jakiñia nori eskeñi!

Baña, bakañik nago,  
bakañ-bakañik...



Oi, ene, zer dagiket  
mañasun barik?

Nunai dauñkidaz emakumak.  
—zenbat bijotz-eder mañe-min—  
Nunai dauñkidaz emakumak  
baña, bat be, etxat atsegin.

¿Zer dala-ta, ene bijotz  
zer dala-ta ezaz poztuten?  
Ainbat emakume-añtian  
mañe bat eztozu añkitzen?

¡Ixadiren ederñtasuna  
Udabañiko goiz onetan;  
alañtasunaren sustañetan  
bijotzaren tamaltasuna!

Nunai dauñkidaz emakumak  
—zenbat bijotz-eder mañe-min—  
Nunai dauñkidaz emakumak  
baña, bat be, etxat atsegin.

Itun, bakañik nago,  
bakañ-bakañik...  
Oi, ene, zer dagiket  
mañasun barik?



# Egun labor ta urte luziak...

Eta,  
egun labur  
ta urte luziak digarotaz  
itxaroten!  
¿Nun bixi da  
nun, ene kutuntxu maitia?

Atzo, iturira etor zan  
neskatilia... ¿A ete da?  
Ala, nabilen bakotxian  
neure bidian daurkidana;  
ala, leyotik, egunero  
eskuaz agur dagistana;  
ala, begitukeran, lotsaz,  
burua makuitzen daustana?  
¿Zein ete da  
zein, ene kutuntxu maitia?  
Biarbada,

bere uřezko ule eder  
eta begi baltz samurakin  
maitekiro ditxarost, bere  
ames zoruntsuban bildurik...

Biarbada,  
oldozkoř bein eta bařiro  
albotik igaroko nintzan  
bere, uřezko ule eder  
eta ĵerdu ona! zirausten  
begietara begiřu бага...

Biařbada,  
ĵene! bein baņo geyagotan  
mintzako giņan bideřtzetan...  
ĵTa, ezkendun,  
ezkendun alkařtu biotzik!

Eta,  
egun labur  
ta, urte luziak digarotaz  
itxaroten!  
ĵNun bixi da  
nun, ene kutuntxu maitia?

# Jon, Gastiarena

Itxasora doya Jon gastia.  
—Maite'ren ama dauñki bidian—  
Itxasora doya Jon gastia  
kamaña dabela lepuan.

Jon gastiaren ituntasuna  
itxasorako bide luzian!

Maite'ren amak, samuñ, diñantso:  
¿Nora ua Jon, zoñuaz lepuan?  
—Itxasora nua —darantzutso—  
dantzatuteko uin-ganian.

—Jon, idatzi gero sañi-sañi  
ta ez aztu zeure etxeuakin.  
—Idazteko sañi? ¡Amaseikuakin  
oba etxera arin etoñi!



—Tira, ba, ondo ibil danakin;  
zatozaneko gure Maite, be...

—Eskeñikasko, andre Mikele,  
enaz aztuko ez, itz oñekin.

Jon gastiaŕen alañasuna  
itxasorako bide luzian!

Gau atan, Jon, zibuka ebiñen  
kamañazko oe txukunian.

Gau atan, Jon, zibuka ebiñen  
bere Maite'rekin, amesetan.

Uñen txipli-txapla gozua  
itxas baketsubaren altzuan!

## Arki-bidia

Aufe-itza . . . . .	7
Areñozar . . . . .	17
¡Ez autortu!. . . . .	21
Afain-saltzalia . . . . .	23
Kabi utsa . . . . .	25
Kolombo'ko belak . . . . .	26
Liluratubarena . . . . .	27
Izkuntza ixila . . . . .	29
Baikortasuna . . . . .	31
Zeugatik . . . . .	32
Itxaropena . . . . .	35
Atzipetubarena . . . . .	36
Argija . . . . .	40
Eta orain . . . . .	41
Udako gaba. . . . .	43
Goxeko adikunea . . . . .	45
Ilunabañak baseñijan . . . . .	47
Arto opilak . . . . .	49

Atsedenaldira . . . . .	51
Gabekua . . . . .	53
Itxaron ama. . . . .	54
Gaberdiko amesa . . . . .	55
Inguma bati. . . . .	58
Zorakerija . . . . .	59
Goyetako eduña . . . . .	61
Edertasun galdubak . . . . .	63
Oroñu gātezan . . . . .	64
Uri ila . . . . .	68
Txori donetsija . . . . .	70
Ume itxastafarena . . . . .	72
Udabañiko eresija . . . . .	74
Egun labur eta urte luziak. . . . .	77
Jon gastiarena . . . . .	79
Arki-bidia . . . . .	81



1-1-n919

R.683







**3,75**